

TREBAKUNTZA 2020-09: SINGULARRA ETA PLURALA

Inguruko erdaren eraginez, sarritan plurala erabiltzen dugu euskarari berez singularra dagokionean. Izen abstraktuekin gertatzen zaigu batez ere.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

- 1 * Banituen **esperantzak** proiektu hori amaituta ikusteko.
2. * Min hartzeko **arriskuak** areagotu egiten dira.
3. * Sintomak: arnasa hartzeko **zailtasunak**, mina...
4. * Haurrak **beren adinen** arabera taldekatzen dira.
5. * Gauzak **beren luzeren** arabera ordenatuko ditugu.
6. * Erantsi elkarri A eta B **motetako** makilatxo bana.

AZALPENA ETA ZUZENKETAK

Izen abstraktu batzuekin, gaztelaniak plurala ohi duen hainbat kasutan euskarak singularra du berezko:

1. Banuen **esperantza** proiektu hori amaituta ikusteko.
2. Min hartzeko **arriskua** areagotu egiten da.
3. Sintomak: arnasa hartzeko **zailtasuna**, mina...

Arabera erabiltzen den perpaus hauei singularra dagokie:

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

4. **Luzeraren** arabera ordenatuko ditugu gauzak
5. **Adinaren** arabera taldekatzen dira haurrak.

Zenbaitetan, juntadura okerren ondoriozko plural eta joskera bitxiak ikusten dira testuetan.

6. Erantsi elkarri A **motako** makilatxo bat eta B **motako** beste bat.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699